



# Ikaskidetzaren erronkak: Eredu berri baterantz

Ainara Artetxe, Meltxor Artetxe, Mariam  
Bilbatua, Pello Jauregi, Marije Fullaondo



# Antolaketa

- Oinarrizko kontzeptuak
  - Konpetentzia
  - Elkarrekin Ikasi
  - Elkarlana
- Ikaskide Taldeak: Ezaugarriak eta eskuhartze irizpideak
- Ikaste Prozesuaren antolaketa




## Zer ulertzen dugu “Konpetentzia” hitza esaten dugunean?

“Egoera eta lan anitzei erantzun egokia emateko gaitasuna, testuinguru anitz eta konplexuetan.” Osagaiak:

- Ezagutzak
- Prozedurak/trebetasunak
- Balioak/jarrerak

(OCDE DeSeCo)





## Zer ulertzen dugu “Elkarrekin ikasi” esaten dugunean?

- Dimentsio bikoitza

### **ikastearen dimentsioa**

Elkarrekin IKASI, hots, bestearen  
laguntzaz ezagutza berriak  
norberenganatu.

### **elkarlanean aritzearen dimentsioa**

ikasi bai, baina ELKARREKIN,  
elkarlanean,  
elkarreraginean

# ELKARLANAREN ARDATZAK



- **Adostasunaren ardatza:** Ardatz honetan norberaren autonomia, izaera, interesak... azaltzen zaizkigu alde batetik; eta taldearenak bestetik: bakarkakoa eta taldekoa, norbanakoaren barne adostasuna eta talde adostasuna.
- **Komunikazioaren ardatza**
  - Norbere ideiak azaldu eta besteenak entzun.
  - Besteekiko harremanak era egokian bideratu.
- **Jardueraren ardatza**
  - xedeak eta norabidea bateratu eta planifikatu.
  - Definitutako erronkak gauzatu.
  - Egindakoa ebaluatu eta hobetu beharrekoak identifikatu: bakarkakoak zein taldekoak.

# Elkarrekin Ikasi eta Oinarrizko Konpetentzien garapena

Pertsona gisa garatzea

Arduraz eta  
autonomiaz  
jokatzea

Ikasten ikasi



Elkarrekin bizitzen  
ikasi

Komunikatzen  
ikasi

Egiten eta ekiten ikasi



## IKASKIDE TALDEAK: EZAUGARRIAK eta eskuhartze irizpideak

- **Zeregina denona da:** Ikaskide guztiek helburu berbera izan behar dute Ikaskide Taldeetan, alegia, denon partaidetzaren bidez, azken ekoizpena lortzea da taldekide guztiek partitu beharko luketen helburua.
  - Jardueraren planifikazioa eta une bakoitzean egokia den Ikaskide teknika erabiltzea eskatzen du.



## IKASKIDE TALDEAK: EZAUGARRIAK eta eskuhartze irizpideak

- **Negoiazioa eta komunikazio irekia:**  
Elkarlanean aritzen garenean, elkarreraginean dauden elementuak eduki behar ditugu kontutan: norbera-taldea; Ikaste-irakaste testuinguruan, ikaslea-taldea-irakaslea.
  - Elementu hauen arteko **negoiazioa** eta **komunikazioa** ezinbestekoak dira, batetik, xedeak modu berean irudikatzeko; eta, bestetik, prozesuan sor daitezkeen gatazkak gainditu ahal izateko.
  - **Jarduera komunikazioaren ardatza**



# IKASKIDE TALDEAK: EZAUGARRIAK eta eskuhartze irizpideak



- **Kooperazio trebetasunetan entrenamendua:**
  - Taldean aritzeak ez dakar, automatikoki, elkarlanean aritzen ikastea.
  - Trebetasun hauen garapena ez da bat batekoa izango, prozesu baten emaitza baizik.
  - Helburu eta egitura sinpleenetatik hasi beharko genuke:
  - Lortu nahi den hori islatzen duten eredu onak guk geuk eskaintzea; alegia, modelaje lana egitea.
  - Ikaskide Taldeetan aritzearen garrantziaz jabetzen laguntzea



## IKASKIDE TALDEAK: EZAUGARRIAK € eskuhartze irizpideak

- **Elkarmenpekotasun positiboa**: Ikasleak, norberaren helburuak lortu ahal izateko **besteen beharra izatea**.
  - Zereginaren egituraren bidez lortuko da; bakoitzak zereginaren atal baten ardura izatean
  - Elkarmenpekotasuna benetakoa izan dadin, eta ez bakarkako lanen batuketa soila, beharrezkoa izango da talde gisa haratago joatea, ikasle bakoitzak eta guztiek egin dituzten lanen arteko erlazioak identifikatzea, eta bakarkako lanen batuketa gaindituko duen zerbait berria ekoiztea...



# IKASKIDE TALDEAK: EZAUGARRIAK

## eskuhartze irizpideak

### ▪ Taldearen eta banakakoaren erantzukizuna:

Ikaskide Taldeak ondo funtzionatzen badu, banakakoaren erantzukizuna ez da taldean diluitzen, indartzen baizik; izan ere, bakoitzak bere zeregina izango du, zeregin horren erantzulea izango da eta bere erantzukizuna den hori bete ezean, ez soilik bere zeregina, baizik eta talde osoaren lana jarriko du kolokan.

- **Zereginen banaketa argia**
- **Zereginen betetzea maila ebaluatzeko tresnak: lan kontratua, errubrikak**



# IKASKIDE TALDEAK: EZAUGARRIA eta eskuhartze irizpideak

- **Autonomia eta autoerregulazioa:**
  - Taldeak autonomia izango du, bai zereginaren norabidea hautatzerakoan, bai gatazkak bideratzean eta baita auto- eta ko-ebaluazio prozesuetan ere.
  - **Irakaslearen rola: Transmisioetik –gidaritzara**
  - **Autorregulazio estrategiak eta tresnak: errubrikak...**



## ZER LANDU? OINARRIZKO KONPETENTZIAK IDENTIFIKATU

Zeharkako konpetentzien lanketa eta ebaluazio sistematiakoak denbora eskatzen du: nondik hartu denbora hori? Zer gertatuko da konpetentzia espezifikoen mailarekin? Ditugun orduak ditugu eta nola bermatuko dugu gaiari dagozkion “ikasi beharrekoak” lortuko dituztela ikasleek? ...

Gehiketa //// **Eraldaketa**  
**GARRANTZITSUAK, GUTXI, MALGUAK, EKINTZA**  
**OROKORREI LOTUAK**

## EBALUAZIOA hausnarketarako tresna gisa



- Sekuentzia Didaktikoaren **hasieran**
  - Aurre-ezagutzak/esperientziak/jarrerak...
  - Zein da helburua? Zertarako? Zer ikasiko dut?  
“ Ikaste-kontratua”, “ Lan-kontratua”, “errubrika”
  
- Sekuentzia Didaktikoaren **garapenean**:
  - Autoerregulazioa/erregulazioa: Zertan hobe dezaket?  
“ *portafolioa*”, “*hausnarketa*” ...**feedback-a**
  
- Sekuentzia Didaktikoaren **bukaeran**:
  - **Feedbacka/hausnarketa**
  - Autoerregulazioa: Zer aldatuko genuke baldin eta...?



- Zer egoera erabili dezaket -bat ala gehiago-, ikasleen interesekoa izanik, sustatu nahi dudan ikasketarekin lotuta egongo dena?
- Zer/zeintzuk estrategia didaktiko erabil dezaket bere garapenerako?
- Zer tresna izango ditut beharrezko prozesua gidatu edo errazteko?

## Zein estrategia metodologiko aukeratu?



Zer egoera mota balia ditzakegu, ikasleen interesekoak direnak edo izan daitezkeenak, ikasleek garatu behar dituzten konpetentzien lanketa sistematikoa ahalbidetuko dutenak?

- Ardatza definitzerakoan parte haratzen duten kide guztiek, egin beharreko ataza erronka positibo gisa ikustea lortu beharko genuke.



# Zein estrategia metodologiko aukeratu?



- **Zer motatako taldekatze eta teknikak proposatuko ditugu?**
  - Teknika kooperatibo konplexuak erabiliko ditugu? puzzlea...
    - Eta dinamika zehatzak? Jolas kooperatiboa...
  - Zein funtzio beteko dute erabiliko ditugun teknikek?
    - Taldearen kohesioa?
    - Komunikazioa?
    - Ezagutzaren garapena?
    - Taldearen inguruan hausnartzea?



Jarduerak aurreikusi eta planifikatu

**Garapen  
Fasea**

Garapena

Ebaluazio irizpideak barneratu

**Hausnarketa  
Fasea**

Helburuak konpartitu

**Sarrera  
Fasea**

Sarrera

Hausnarketa

Garapena

Hausnarketa

Sarrera

Produkzioa

Produkzioa

**Produkzio  
Fasea**



## Prozesua nola antolatu ?

### SARRERA

- ✓ Helburuak aurkeztu
- ✓ Lanerako motibatu
- ✓ Aurre-ezagutzak piztu
- ✓ Jarduerak kokatu
- ✓ **LAN KOOPERATIBOAREN GAINEAN HAUSNARTU**

✓ **ARAZOAREN KONTZIENTZIA:** Aurre-ezagutzak piztu eta euren ez-nahikotasuna agerian utzi: zer dakigu, zer jakin beharko genuke, zer ikasi behar dut.

✓ **JAKINMINA:** Informazio berria aurkeztu, ezustekoa. Galderak eta arazoak planteatu.

✓ **GARRANTZIA ETA ERABILGARRITASUNA.** Atazaren erabilgarritasuna esplizitu egin. Ikasi behar denarekin eta ikasleen helburuekin lotuta dauden egoerak erabili.

✓ **PARTAIDETZA.** Taldean aritzeko beharra sentitu, funtzioak eta zereginak identifikatu.

✓ **ERRONKA:** Helburuak azaldu.

Ataza eramangarria eta egingarria dela sinestaraztea lortu.



Sarrera	Jardueren antolaketa	Balidabideak: antolaketa, tresnak	Ekoizpenak	Ebaluazio irizpideak
	<u>Prozesuaren aurkezpena:</u> . Sarrera . Ataza . Prozesua	Aditu taldea		
	<u>Ikasketa kooperatiboaren gaineko hausnarketa</u> . Fabula . Irudia . Dinamika: . Jolasa . Hausnarketa  <u>Aditu taldeen lana identifikatu</u>	Lan-kontratua         Lan-plana	Lan kontratua         Lan-plana	



**GARAPENA**


✓ Sekuentzia Didaktikoaren helburu eta edukiak lantzerantzuzendutako jarduerak.

✓ Helburuekin lotutako jarduerak:  
✓ Elkarlana ahalbidetzen duten Ikaskide teknikak

- ✓ Nola egiten da: adibideak eman (modelajea)
- ✓ Esperimentatu
- ✓ Egoera problematikoaren inguruan hausnartu
- ✓ Irtenbideak bilatu eta elkartrukatu
- ✓ Bide alternatiboez eztabaidatu



GARAPENA	Jardueren antolaketa	Baliabideak: antolaketa, tresnak	Ekoizpenak	Ebaluazio irizpideak
	<p><u>Talde osoa</u> Modelajea: atazaren parametroak aztertu: estrategia egokiak identifikatu.</p>	<p>. Errubrikak aztertu</p>	<p>Errubrikak</p>	<p>Errubrikak aztertu Prozesuaren betetze maila Autorregulaziora ko irizpideak: kontrol zerrendak</p>
	<p><u>ilkaskide</u> <u>Taldeak:</u> <u>Oinarrizko taldea.</u> Aditu <u>taldea:</u> . Informazio bilaketa . Informazioaren antolaketa . Laburpena</p>	<p>. Lan-plana . Aktak</p>	<p>.Lan-plana . Aktak . Taldearen ibilbidearen gaineko hausnarketa.</p>	





EKOIZPENA	Jardueren antolaketa	Baliabideak: antolaketa, tresnak	Ekoizpenak	Ebaluazio irizpideak
	<p>Aditu taldea <u>Txostenaren aurkezpena</u></p>		Txostena	<p>Rubriken argitara egindako ebaluazioa</p>
	<p>Talde naturala . Txostena taldeari aurkeztu . Ulermena errazteko laguntzak . Parekideen arteko tutoretza</p>	<p>Gela-dinamikak: . Parekideen arteko tutoretza</p>	<p>Bakarkako txostena  Azterketa</p>	<p>Norbanako ebaluazioa . Ikaste emaitzak</p>





**HAUSNARKETA**

- ✓Ikasitakoa egituratu
- ✓Edukiak formalizatu
- ✓Edukien arteko loturak egin
- ✓Ikasitakoaz jabetu

- ✓Lorpen/kalitate adierazleak ezarri
- ✓Egoerak ebaluatu
- ✓Ikaste-prozesuaren inguruan hausnartu:  
IKASKIDE TALDEEN FUNTZIONAMENDUA
- ✓Hobetu beharreko alderdiak identifikatu



HAUSNARKETA	Jardueren antolaketa	Baliabideak: antolaketa, tresnak	Ekoizpenak	Ebaluazio tresnak eta irizpideak
	Emaitzen gaineko hausnarketa Zer ikasi dugu?	Aditu taldea Taldea naturala	Galdetegiak	
	<u>Ikasketa kooperatiboaren eta taldearen ibilbidearen gaineko hausnarketa.</u>  <u>Hobetu beharreko alderdien identifikazioa</u>	Errubriken gaineko hausnarketa	Talde lanaren ebaluazioa	Ikaste emaitzak



# Mila esker zuen arretagatik